

Txostena

Duela hilabete bat, euskarazko klasean Esdelibroko lehiaketan parte hartzeko aukera eman zigun irakasleak. Hainbat gai aukeratzeko genituen. Baina haien artean, guk minbizia eta horrekiko hurbilketa pertsonalaren gaia aukeratu genuen, oso hurbil bizitzen ari garen gaia delako eta interesgarria iruditu zaigulako.

Gaia modu ezberdinetan landu izan dugu: hainbat kasu aztertu ditugu elkarrizketak eginez, sufritu edo sufritzen duten pertsonekin, haien familiako kideekin; gure herrian inkestak egin ditugu; hainbat informazio iturrietatik informazioa lortu dugu ... etab.

Hasieran, informazioa aztertu eta sailkatu genuen. Ondoren, inkesta bat sortu genuen eta gure herriko jendearen erantzunak jaso genituen. Hauekin, datuak aztertu, konparatu, grafikoak egin, ondorioak atera ... etab. Baliabideekin bukatzeko gure inguruko pertsonen elkarrizketa batzuk egin genizkien. Elkarrizketa horietan minbiziarekin zein harreman pertsonala izan zuten jakitea lortu genuen.

Informazio iturri desberdinekin lortutako datu guztiak aurrean izanda, lan idatziarekin hasi ginen. Horretarako pausu batzuk jarraitu genituen:

1. Gidoi bat egin.
2. Ezertarako balio ez zuen informazioa baztertu.
3. Informazio egokia gaika sailkatu.
4. Forma idatzia eman.
5. Behaketa eta zuzenketa.

Lan idatzia bukatu ostean, blog bat sortzea bururatu zitzaigun. Bertan, gure lanaren informazioa era grafikoagoan txertatu genuen, minbiziaren kontrako hainbat kanpainen bideo eskegi ditugu, argazkiak ... etab.